

Donostian, 2019ko urtarrilaren 17an

IDAZKARI NAGUSIARI

OROIGARRI ETA OPARIEI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Irabazi Donostia udal taldearen bozeramaile Amaia Martin Garinek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluan oinarrituta, KONTROL MOZIO hau aurkezten dut. Mozioa hilabete honetako Zerbitzu Orokorren Batzordean opari eta oroigarriei buruz egindako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Botere publikoen eta horien ordezkari nagusien jarduerak izan behar dituen printzipio orokorren artean, zintzotasuna, inpartzialtasuna eta objektibotasuna eta interes gatazken prebentzioa daude.

Administrazio publikoek dituzten etika eta jokabide kodeetan proiektzio handia dute printzipio horiek, eta jokabide ustelak saihesteko beste zuhurtziazko neurri baten modura erabiltzen dira. Gehien-gehienak bat datoz arduradun nagusiek zeinahi opari edo abantaila jasotzeko debekua sartzean, aipatutako printzipioek ez dezaten eraginik izan, hastapenok haien karguetan gidari izan behar dituztelako.

Beste urrats bat egin du etika publikoko gutxieneko estandar batzuk eskatzean Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak, gaitzesgarri jotzen baitu ohiko gizarte edo kortesia arauak gainditzen dituzten opariak edo mesedeak nahiz zerbitzuak baldintza abantailatsuetan onartzea, arduradunei beren eginkizunak betetzea baldintzatu dezaketelako. Antzeko zentzuan, Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioaren Tokiko Gobernu Onaren Kodeak debeku bera adierazten du, eta 150 euroan ezartzen du onar daitezkeen oparien balioaren muga.

Bestalde, 2013an EUDELeK onarturiko Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko politikaren kalitate instituzionalerako konpromiso, jokabide eta gobernu onerako Kodeak adierazten duenez,

ordezkaritza duen kargu publikoak ez du onartuko, bere kargua dela-eta, pertsona edo erakunderen batek emandako oparirik edo zerbitzurik, gizarte eta adeitasunezko ohiko usadioetatik harantz badao.

Halaber, gardentasunari buruzko atalean xedatzen duenez, erakundea kudeatzeko egiten diren jarduerak eta jarduera politiko guztiak gardentasun oinarriaren mendean jarri beharko ditu.

Bestalde, langilearen jarduera ikuskatzen duen Jokabide Kode bat sartzen du Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko apirilaren 12ko 7/2007 Legeak, eta sektore publikoaren zerbitzura dauden langileek jaso beharreko oparien araubide juridikoa arautzen du, ohiko gizarte eta adeitasunezko ohiko usadioetatik harantz doazen guztiak arbuiatzeko betebeharra ezarrita.

Tokiko administraziora itzuliz gero, aipatzekoa da, 2015etik, Madrilek, beste udalerriak beste, Gobernu Batzarraren erabaki bidez, honako hauek aipatzen dituela jaso daitezkeen oparietarako araubideari dagokionez: alkatea, Gobernu Batzarreko kideak, gobernu erantzukizunak dituzten zinegotziak, distritu buru diren zinegotziak, zuzendaritza organoetako titularrak eta udaleko nahiz erakunde autonomoetako langile publikoak. Era berean, jasotako oparien zerrenda argitaratzen dute udalaren web orrian, gardentasunaren atarian.

Donostian, 2012an onartutako Gobernu Onaren Kode bat du Udalak, eta kargu publikoen ondasunetan jarraitu beharreko hainbat konpromiso eta printzipio proposatzen ditu, besteak beste.

Hala ere, beharrezkoa da gardentasuna, osotasuna eta interes gatazkak prebenitzea lortzeko urratsak egiten jarraitzea. Beraz, honako hau aurkezten dugu:

KONTROL MOZIOA

1. Hertsatuki eskatzen dio Donostiako Udaltzarak udal Gobernuari udal webgunean argitara ditzala udal kargu publikoek, konfiantzako langileek, zuzendaritza organoen kideek eta langileek jasotzen dituzten sariak.

2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio udal Gobernuari, hiru hilabeteko epean, kargu publikoek, konfiantzako karguek, zuzendaritza organoetako titularrek eta Udaleko eta udal erakunde autonomiadunetako langileek opariak jasotzean dituzten mugak argi eta garbi ezartzeko.

Sinatua: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldearen bozeramailea.